

HONDA



CR-V
Plug-in Hy

Este n
condicio
excepciona

EL DIARIO VASCO



Portada Culturas Libros

'Ganbara', emakume baten gotorlekua

Marlen Hausofer-en nobela intimo eta zorrotza euskaratu du Naroa Zubillagak eta Ereinek argitaratu

Guardar Regala esta noticia WhatsApp Facebook X Telegram Print Añádenos en Google



Naroa Zubillaga Ereinen eskutik kaleratu berri duen itzulpenarekin. (DE LA HERA)



Iñaki Izquierdo >

23/06/2026 Actualizado a las 08:44h.

[+ Seguir](#)

Joseph Roth, Thomas Mann, Robert Musil edo Herman Broch maisu izan ziren mundu germanikoa marraztu eta deskribatzerako orduan. Definizio kanonikoa ezarri zuten. Marlen Hausofer lurralde horietan sortu bai, baina beste mundu batean bizi izan zen, eta horixe islatu zuen bere liburuetan. Austrian jaio zen 1920an eta bere obra Bigarren Mundu Gerra ostean idatzi zuen. Lan horietatik azkena izan zen 'Ganbara' (1969), orain Ereinek euskaraz argitaratu duena, Naroa Zubillagak itzulita.

«Nobelak emakume baten eguneroko bizitza kontatzen du, itxuraz arrunta. Emazte eta ama gisa bizi da, errutinak eta ohiturek markatutako etxe batean, non dena aurreikusgarria dirudien. Gauero ganbarara igotzen da, bakarrik egoteko, marrazteko eta margotzeko, bere barne munduari leku txiki bat egiteko. Baina egun batean, iraganeko eguneroko zatiak jasotzen hasten da gutunez, eta ahaztu nahi izan duen bizipen batek berriro harrapatzen du. Pixkanaka, orainaren lasaitasuna hausten doa, eta iraganak gero eta presentzia handiagoa hartzen du».

Horrela aurkezten du argialetxeak Haushofer-en liburua ('Die Mansarde'). Goitik behera nobela germanikoa da eta maisuki girotuta dago, baina nobelaren meriturik handiena emakumearen bizipenak ororen gaintik jartzean datza. Batik bat idazleak hain zehatz, fin eta zorrotz margotzen duen munduaren aurretik, hura baztertuz eta bigarren planora eramanez. Kontakizun intimoa da. Aldarrikapena, ezkontza, familia eta eguneroko bizitzaren rol banaketen kritika gogorra. Garrasirik gabe, baina aitzakiarik gabe. Isila bezain handia da 'Ganbara'-ren orrialdeetan nabari den tentsioa.

Hausofer alemanierazko literaturaren erreferente bihurtu zen Bigarren Mundu Gerra ostean. Arrakasta handia lortu zuen 'Horma' ('Die Wand') nobelarekin (1963). Naroa Zubillagak euskaratu zuen hura ere, 2023an.

'Ganbara' askatasun sinboloa da. Europako emakumeen egoeraren inguruan Simone de Beauvoirek 'Bigarren sexua'-ren egindako analisiaren eragina nabaria da bai 'Ganbara'-n baita 'Horma'-n ere. Irakurketa kritikoa da. Hausofer-ek azaleratzen du ganbara ez dela soilik espazio bat. Aldiz, emakumearen lekua eta haren mugak agerian jartzen ditu. Alde batetik, gizarteak emakumeekiko dituen opresio mekanismoak (ezkontza beste guztien gaintik) agerian utziz; baina, aldi berean, emakumeek bidegabekeriak onartzeko duten joera ere salatuz, autokritika hotz bezain zorrotzarekin. Jasotzen duen gutunak bizi duen oreka prekariora kolokan jartzen du.

Askatasun sinboloa

XX. mendean ganbara askatasun sinboloa al zen? Izan ere, orain irakurrita, zalantza sortzen da: estadio hori gaindituta ote dagoen, alegia. 'Gela bat norberarena' aldarrikatzen zuen Virginia Woolfek 1929an. Gurean, Yolanda Arrietak dagoeneko gela bat nahikoa ez zela azaldu zuen 'Etxe bat norberarena' lanean. Baina, hori horrela izanda, onartu behar da ere 2026an emakume askok eta askok ez dutela euren ganbaratxo (erreal edo metaforikoa), ezta batekin amesteko aukerarik ere.

Dena den, nobela honetan, argitaletxeak dioen bezala, «idazkerak neurritz eta zehaztasunez eraikitzen du tentsio isila, eta irakurlea pixkanaka murgiltzen da narratzailearen buruan. Isiltasunak eta esaten ez denak indar handia hartzen dute. Kontakizun honek ez du zaratarik egiten, baina arrastoa uzten du. Irakurketa pausatua eskatzen du, baina merezi du bertan gelditzea».


Idazkera zehatza dauka Hausoferrek, germaniarra. Nobela bikain girotuta dago, hasierako Goriziako alemaniar hizkerari egindako aipamenetik hasita. San Gotardo-Mogersdorfeko gudua, Ebelsbergeko 1809ko gudua, Kranawetteiser doktorea, txahal-gulasha... Baina horren guztiaren gainera, oso gainera, emakumearen distira intimoa bere gotorlekuan.

Temas Erein Argitaletxea

[Comenta](#)

[Reportar un error](#)

TE PUEDE INTERESAR



El médico aconseja: «Si tu vientre no baja, haz esto cada día»

Cuatro alimentos que limpian el hígado y pueden quemar la grasa abdominal
diariodeuncardiologo.es | Patrocinado



¡Sin instalación y apenas gasta luz! Este mini aire de 138€ bate récords

Breezo | Patrocinado